

M1 Kalera

ASKATASUN HAIZEA HERRI EKIMENA :: 28/04/2022

Maiatzaren lehena borroka eguna da langilegoarentzat; nazioartean mobilizatzeko halabeharrezko data.

Aurten, azpimarratzekoa da sistema kapitalistak pairatzen duen krisia; ezinbesteko barne berregituraketa prozesuan. orden multipolar berriaren larrialdi sakonagatik jota dabil. Ohi bezala. kapitalismoak historian zehar artikulatu dituen mekanismo berdinekin erreakzionatzen du: gudak antolatuz; sarraskiak, suntsiketa eta miseria eraginez langile klasearen kalterako eta korporazio erraldoien eta jauntxo ekonomikoen mese-derako. Horren ondorio zuzena da naturaren baliabideen arpilaketa eta planetaren suntsiketa.

Mundu mailan diharduen kapitalismoak kupidarik gabe zapaltzen du bere nahi eta aginduek jarraitzen ez duen oro. Diktadura global baten aurrean gaude; berau, ofentsiba ideologikoan, zentzuran, oinarritzko es-kubideen murrizketan, norbanakoen kontrolean edota manipulazio mediatikoan gauzatzen da eta guzti honekin batera, ultraeskuinaren hauspotzean.

Dagoeneko, lanbidea eukitzeak ez du segurtatzen bizitza duinik; lan prekarietate eta soldata eskasekin ezinezkoa da prezioen garestitze ikaragarriari aurre egitea, oinarritzko beharrak. elikadura. gasa, elektrizitate, alokairuak, erantzuteko. Lanpostu negargarrien sustatzaile diren Amazon moduko operadoreek. gure herri eta auzoetako denda txikiak itotzen dituzte. Ura jabego pribatu bilakatu dute eta osasungintza zein irakaskuntza kudeaketa pribatura daramate. Gaur egun, sistemak lotsagabe espekulatzen du oinarritzko ondare eta eskubideekin, betiere aberats gutxi batzuen probetxurako.

Bada garaia benetako herri boterea aldarrikatzeko, kapitalaren morroi diren gobernuei aurre egiteko, bote-re herrikoiak bere esku har ditzan bankuen kudeaketa eta etxebizitza, baita elektrizitatea bezalako oinarritzko baliabideak geureganatzeko, elikadura kate espekulatzailerekin amaitzeko eta pribatizazioen aurka burubelarriz eragiteko.

Borroka garaia da; kaleak hartzeko unea; lokatza eta asfaltoa gure martxa irmoarekin astintzekoa; kontzientzia, borrokatik dator. Gure betebeharrak ekidinezina da parez-pare daukagun eraso honen aurrean oldartzea; Euskal Herri sozialistaren eraikuntzan jarduteko eta munduko beste hainbat Herriekin kapitalismoaren tiraniari aurre egiteko. Askatasun Haizeatik deia luzatzen diogu langile klaseko partaide guztiei kaleak hartzeko; presente egon gaitezen Euskal Herri sozialista, internazionalista, feminista eta euskaldunaren alde borrokatzeko mobilizatuko diren ekimen guztietan.

Independentzia eta Sozialismoa
HERRI BOTEREA